



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea

EGUNA / FECHA: 6/4/2016

HASIERA / INICIO: 20:15

AMAIERA / FINAL: 20:30

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen 2016ko martxoaren 16ko saioko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 16 de marzo de 2016.

2.- Busturiko Herri Erakundeen Erregistroan izena emandako elkarteentzako diru-laguntza arruntak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Busturiko Herri Erakundeen Erregistroan izena emandako elkarteentzako diru-laguntza arrunten deialdia onartzea, norgehiagoka bidez, diru-laguntzak emateko indarrean dagoen udal-ordenantzan ezarritakoaren arabera, eskaerak aurkezteko epemuga 2015eko maiatzaren 10a ezarrita. Horretarako, jakinarazpena igorriko zaie (posta arruntez zein elektronikoz), eskabide-ereduarekin batera.

2.º.- Subvenciones ordinarias para las asociaciones inscritas en el Registro de Entidades Populares de Busturia.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la convocatoria para la concesión de subvenciones ordinarias para las asociaciones inscritas en el Registro de Entidades Populares de Busturia, mediante el régimen de concurrencia competitiva, conforme a lo establecido en la vigente ordenanza municipal de concesión de subvenciones, señalando como plazo para la presentación de peticiones el 10 de mayo de 2015.

Para ello se les enviará una notificación (tanto por correo ordinario como electrónico) junto con el modelo de solicitud.

3.- Organo-kontzertuak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Udal honek "Urdaibaiko organoak - Joxe Mari Eguileor" organo-kontzertuen denboraldian parte-har dezan onartzea, "Urremendi" Landa Garapenerako Elkartek antolatzen duen horretan, eta egitaraua ere onartzea.

3.º.- Conciertos de órgano.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la participación de este Ayuntamiento en la temporada de conciertos de órgano "Urdaibaiko organoak - Joxe Mari Eguileor", elaborado por la Asociación de Desarrollo Rural "Urremendi", y aprobar su programación.

4.- Kirol-azpiegituretarako diru-laguntzak.-

Martxoaren 1eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2016 Foru Dekretua ikusirik, kirol azpiegiturak berriztatu, eraberritu edo berreraultzeko egiten diren inbertsioak finantzatzeko diru laguntza emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, "Busturiko Frontoien Hobekuntza" lanak egitea erabaki zuen eta honetarako diru laguntza eskatzea.

4.º.- Subvenciones infraestructuras deportivas.-

Visto el Decreto Foral 34/2016, de 1 de marzo, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a la financiación de inversiones de reforma, renovación o reutilización de infraestructuras deportivas, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó llevar a cabo las obras de "Mejora de los Frontones de Busturia", y solicitar subvención a la Diputación Foral.

5.- Efizientzia energetikorako diru-laguntzak.-

Tokiko Gobernu Batzordeari Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 15eko 54/2016 Foru Dekretuaren argitalpenaren berri eman zitzaion; dekretu horren bidez, efizientzia

5.º.- Subvenciones eficiencia energética.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la publicación del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 54/2016, de 15 de marzo, por el que se establecen las bases y convoca-



energetikoaren arloan tokiko ekintza-planak (Tokiko Agenda 21) ezartzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dira. Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aurten ez eskatzea laguntza ekonomikorik, beste lehentasun batzuk daudelako.

toria reguladoras de la concesión de subvenciones para la implantación de planes de acción local (Agenda Local 21) en materia de eficiencia energética y acordó, por unanimidad, no solicitar ayuda económica este año, dada la existencia de otras prioridades.

6.- Auzo-eragozpenei buruzko kexak.-

Kontuan hartuta berriz jaso direla kexak San Kristobal auzoko 36.eko auzotar baten tronpeta-entseguek eragindako eragozpenen ganean, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Alkate jauna harekin harremanetan jartzea eta gogoratzea Udaletxeko ekipamendu kulturalak erabil ditzakeela entsegu musikalak egiteko.

6.º.- Quejas por molestias vecinales.-

Visto que se han reproducido las quejas por las molestias ocasionadas por los ensayos de trompeta de un vecino en el barrio San Cristóbal 36, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó que el Sr. Alcalde se ponga en contacto con ese vecino para reiterarle la posibilidad de utilizar los equipamientos culturales del Ayuntamiento para realizar sus prácticas musicales.

7.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txostenak ikusita, aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

- 1.- J. L. H. A.-M. (20/16 Txost.), leihoak aldatzeko, Altamira auzoko 44-3. ezkerrean, 4.845,00 €-ko aurrekontuarekin.
- 2.- M. C. B. A. (22/16 Txost.), argindar-, iturgintza- eta arotzeria-instalazioetarako eta egongelaren eta logela nagusiaren banaketa aldatzeko, San Kristobal auzoko 46.ean, 20.887,40 €-ko aurrekontuarekin.
- 3.- J. I. L. A. (27/15 Txost.), teilatua desmuntatzeko, gapirio berriak ezartzeko eta teila mistoa jartzeko, San Kristobal auzoko 41.ean, 12.213,00 €-ko aurrekontuarekin.

7.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

- 1.º.- J. L. H. A.-M. (Expte. 20/16), para sustitución de ventanas, en el barrio de Altamira, n.º 46-3.º izda., con un presupuesto de 4.845,00 €.
- 2.º.- M. C. B. A. (Expte. 22/16), para instalaciones de electricidad, fontanería y carpintería y modificación distributiva en zona de salón y dormitorio principal, en el barrio de San Cristóbal, n.º 46, con un presupuesto de 20.887,40 €.
- 3.º.- J. I. L. A. (Expte. 27/15), desmonte de tejado, colocación de cabios nuevos y colocación de teja mixta, en el barrio de San Cristóbal, n.º 41, con un presupuesto de 12.213,00 €.

8.- Ustekabeen konturako diru-laguntza eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen diru-laguntza eskaera egitea Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 215/2015 Foru Dekretuaren kontura; dekretu horrek Udalen Finantzaketarako Foru Funtzaren (Udalkutxa) ustekabeetara bideraturiko transferentziak banatzeko prozedura arautzen du, 2016. urterako, 2016ko martxoko euri-jasek Altamira-Bermeo bidean eragindako kalteak konpontzeko obretarako.

8.º.- Solicitud de subvención con cargo a Imprevistos.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar subvención con cargo al Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 215/2015, de 22 de diciembre, por el que se regula el procedimiento de concesión de transferencias destinadas a imprevistos del Fondo Foral de Financiación Municipal (Udalkutxa) para el año 2016, para las obras de Reparación de los daños ocasionados por las lluvias torrenciales de marzo de 2016 en el camino Altamira-Bermeo.

9.- Udal-bidearen itxiera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera egitea 4. Poligonoko 9. lursailaren jabeari (bere jabetza hesi elektrifikatu edo artzain elektriko batekin itxi duenari) berehala ezaba dezan Landaverdetik Elorrietarako udal-bideari eragiten dion itxiera-tartea.

9.º.- Cierre de camino municipal.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó requerir al propietario de la parcela 9 del Polígono 4 (que ha cerrado su propiedad con una cerca electrificada o pastor eléctrico) para que, de manera inmediata, elimine el tramo de cierre que afecta al camino municipal de Landaverde a Elorrieta.



10.- Otsozulo Kultur Elkartearen eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Otsozulo Kultur Elkartearen eskaera onartzea, apirilaren 16an Gazte Egunaren ospakizunean mahaiak eta bankuak, zabor-educiontzia, sorgailu txiki bat eta tutu malgu bat erabiltzeko.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

10.º.- Solicitud de Otsozulo Kultur Elkartea.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de Otsozulo Kultur Elkartea para el uso de mesas, y bancos, contenedores de basura, un generador pequeño y una manguera el día 16 de abril con motivo del Gazte Eguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez